



*Piraten matxinada*  
McOnak  
Mauka, 2014

## Kantatuz adorea airean

BITXIA DA azken urteetan Euskal Herrian folka eta punka ezkontzeko sortu den zaletasuna. Hala ere, zeresan dezente ematen badute ere, ez dira hainbeste talde joera hori hartu dutenak eta beraien proposamenak desberdinak dira. Bizar-dunak talde nafarra (nongoa, bestela?) izan zen aitzindaria, eta gure arbasoak eta erreinua azalera ekartzeaz gain, punka folkera eta folka kaos erdi kontrolatura eramán zuten, azken urtean esperimentatzen hasi zirenen arte. Goierrri eta Bergarako kideak dituen Fiachras taldeak ukitu pertsonalagoa dauka, malenkoniatsuagoa eta are tabernazaleagoa, multzo txikiagoetakoa. Horien artean Lekeitiko McOnak taldea da gazteena, baina kostaldekoak dira, eta urte eskasetan lortu dute gazte asko beraien itsasontzira igotzea eta portuetara heltzen direnean pitxarrak altxata ongietorri beroa egitea.

Jakina da itsasoak nahi duena eramán eta ekartzen duela; eta ezaguna da ere, itsasora begira bizi direnek kanpotik asko jasotzen dutela: ona eta txarra. Era berean, azala eta, batez ere, izaera gogortzen zaie. Lekeitioko sei gazte hauek itsasoa zainetan daramate, eta hark eman die olatuek kostaldeko harrien kontra borrokatzeko pareko grina. Eta besterik ere eman die: hain urrun eta aldi berean hain gertu daukagun Irlanda eta bere ospakizunak, negar eta guda musika, erraietakoa, folka alegia.

Odol gazi berria heldu da itsas bazterrera, gelditzeko asmoz. Saxo, whistle, soinu, harmonika eta ohikoagoak diren rock instrumentuek lagunduta, folkean oinarritu eta beste hainbat estilo lantzeko gai izan dira *lekittarrak*.

*Piraten matxinada* izenpean, marinelek taberna zaharretan etsaiak lumatzen dituzten gisa abesten dute, garagardo pitxarra eskutan, distantziak eragin-



KALERAROCK

dako negar malkoa ia agerian, baina laguna besarkatuz adorea airean. Folka malenkonia eta adorea da, herriaren kanta delako, eta hala sentitzen dute hauek ere. Baina Hertzainak-eko Garik antzina abestuko lukeen parera edo, The Solano's gogora ekarriz, euskarazko rock biziaz ere ezta iriak urratzeko gai dira.

Diskoa ontzeko eta, tarteka, kantuei country, punk-rock, ska, reggae eta bestelako janzkera jartzeko, luxuzko gonbidatuak izan dituzte lehen disko luze honetan: Fiachras-eko Haritz Artola, Audience taldeko Ager Isunza, Delirium Tremens-eko Andoni Basterretxea eta Skakeitan taldeko Olatz Salvador, besteak beste.

Hitzetan ere malenkoniak gain, (auto) kritika zorrotza egiten diete beraien buruei eta herri honetako lasai bizitzen uzten ez diguten hainbati eta hainbati, metafora eta esaldi irudimentsuak erabiliz. Gainera, herrikide zuten Ume Gaiztuak taldea omendu nahi izan dute, gaur idatzia dirudien *Espekulazioa* kantua gogora ekarriz.

Bitartean, McOnak-ekoek abesten duten bezalaxe, "Heriotzak harrapa gaitzala berarekin dantzatzen". ■

**Iker Barandiaran**

